

# Manbolin

2026 apirila

281ak.

**Markel Etxeberria:**  
**“Parisen nago,**  
**baina herria oso presente daukat”**

**Irao berri**  
pottokak

675 965 116 iraopottoka@gmail.com

Botika - Laborategia  
**ZURUTUZA**

Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006  
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



**Gestoria Zubia**

M<sup>a</sup> Jesus Zubia Olaizola  
Portale kalea 7, beheha - 20740 ZESTOA  
Tel./FAX: 943 897 070

Portale Kalea 7,  
20740 Zestoa  
tel. 943 147 088

**k**

**kutxabank**

*Ekain Berri*  
kafetegia

Ordutegia  
Aste barruan 06:30/13:30  
16:30/20:30

Asteburutan  
06:30/14:30  
Arratsaldez itxita

By NADIA  
Tif: 943 536 314  
ZESTOA

**Waller**  
gi

943 147 657

**CARAVAN PARK**

GARRAIO SISTEMAK  
ERREMOLKEEN SALMENTA  
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK  
KARABANA, AUTOKARABANA eta  
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK  
KONPONKETA eta  
MANTENTZE LANAK

tel. 943 147 679  
www.caravan-park.net  
info@caravan-park.net

ZESTOA TEL. 14 76 79

**Zestoa**  
AUTOESKOLA

Gesalaga 1  
20740 Zestoa Gipuzkoa

Tel. 943 148 524  
zestoa\_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44

APIRILA

	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11
13	14	15	16	17	18
20	21	22	23	24	25
27	28	29	30		

MAIATZA

	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29
30	31				

EKAINA

1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30

Egun osoan irekita ■ Mus buzetiketa 22:00etan ■ Irekita 18:00etatik aurrera ■ Itxia

**UZTAPIDE**  
**TABERNA**

Erdikalea 5  
Telf: 943 14 73 22  
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

**AVA** ASESORIA ARIN

ABOKATUA GESTORIA  
KONTABILITATEAK ZERGAK  
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA  
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURAK

Gesalaga kalea, 22 beheha 20740 ZESTOA  
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com

**IRAETA JATETXEA**

Olaizola eta Uria kalea - Iraeta  
943 147 067

Gesalaga kalea 20  
Zestoa 20740

**MI ZU**  
Hortz Klinika

mizuclicadental@gmail.com  
ZURIÑE ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 797  
IDIOIA ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 868

Telf.: 943 14 78 28

**eskua**  
Therapy Group

**Fisioterapia**  
**Osteopatia**

— 943 29 08 99 —

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

**GISASOLA**  
EGOITZA - RESIDENCIA

Toribio Altzaga 6 - Zestoa  
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

*Viran Zub*  
taberna

*kulixi eta*  
*pentsuak*

**LAIAK**  
ZESTOA

www.laiakdenda.com  
tfnoa: 943148134

laiak.  
Lurraren onena  
Zestoaren bihotzean.

**harresi**

Tif 943 323 894  
Gurutzeaga kalea 11-13

**Eizagirre**  
**Okindegia**

Tel: 943 090341

**foti**  
taberna

Zestoa  
Kaleokerra, 3  
Tel. 943 147 269

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l

Itzulpenak baino askoz gehiago!

**Bakun**

Narkis Balentziaga, 2  
20749 Arroa (Gipuzkoa)

T+34 943 148 306  
F+34 943 897 380

bakun@bakun.eus  
www.bakun.eus

**UROLA**  
ITURGINTZA

665 49 07 73

**KOIOTE**

foru plaza, 4  
tel. 943 147 095

**Aranburu**

Landetxea eta jatetxea  
943 148 005

## MODERNOA(K) AL ZARA / GARA?

Kallean, sare sozialetan, telebistan etengabe entzuten dugun hitza da modernoa. "Hau moderno bat da", "Beste hori moderno janzten da", "Haiek musika modernoa egiten dute"...

Pentsatzen jarrita, nire ahotik askotan irteten den hitza da, baina ba al dakit benetan zer esan nahi duen? Ondo erabiltzen al dut? Edo esateagatik esan? Mugikorra hartu eta m-o-d-e-r-n-o-a tekleatu dut. Eraitza asko. Euskaltzaindian sartu naiz. Hauxe da pantailaren beste aldetik jaso dudana erantzuna: "Gaurkoa, egungoa; oraintsukoa edo aintzinakotzat hartzen ez dena". Mahai azpiko apalari begira gelditu naiz, adi-adi. 15 Danbolin ale daude, bata bestearen gainean eta zera etorri zait burura: "Moderno al da Danbolin?" Mende laurdena bete dugu, bai, baina horrek ez du esan nahi aintzinakoak garenik. Urteak bete izanagatik ere, gaurkoa, egungoa, bizi-bizia izaten jarraitzen du hain maitea dugun proiektuak.

Eta... Zestoarrok modernoak al gara? Bai, ezta? Beno, ez dakit modernoak den hitza. Gure herrian jaio garenok irekiagoak edo bestelakoak garela entzun izan dugu behintzat. Baina, mitoa ala erre-alitatea da hori? Galdera horri erantzuteko, duela ehun urteko Zestoan jarri du begirada Fernando Arzallusek. Aldaketa asko eman ziren garai hartan. Kostatik gertu egoteak eta turistentzako leku kuttun bilakatzeak garaiko herritarren bizitza aldatu zuen. Ordura arte pentsaezinak ziren gauza asko iritsi ziren gurera: Urola trenaren sorrera, zinema-aretoaren irekiera, musika eta janzkera berriak...

Garai hartakoa zen Cristobal Balenciaga ere. Eta esango duzue, zer dela aipatu du honek Getariako diseinatzailea? Ba gure herrikide bat hark utzitako ondarearekin lotuta dago. Izan ere, Markel Etxeberriak etxe horretan egin zituen bere ibilbide profesionalaren hasierako pausuak. Moda eta beste hainbat konturen inguruan aritu da Etxeberria Amaiur Aristi lagunarekin. Kolekzio eta estudio-koordinazioan dabil lanean, Parisen, Givenchy moda etxe famatuan. Azken hamarkadetan moda asko industrializatu dela dio, baina orain ba omen dago berriro hasierako modura itzultzeko joera, eskulanari balioa ematekoa. Artisauzintzara, eskulanera itzultzea ere gaurkoa da, egungoa; oraintsukoa edo aintzakotzat hartzen ez dena, hau da, modernoa.

Ondorioa: ez dakit zestoarrok modernoak garen, baina, tira, baietz esango dut... Orain zure txanda da, irakurle. Hartu patxadaz eta gozatu eskuartean duzun aleaz.

*itzago waliño errasti*



**DANBOLINEK** EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZIGAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

**Argitaraberritza:** DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

**Danbolin:** NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MATSUTANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ICSASO WALIÑO, OHIANA CALPARSORO ETA OIHANE GOIKOETXEA  
**Kolaboraberritza/ezentzaberritza taldea:** NAGORE TELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRUREGA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ICSASO ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE  
**Diseinua eta makelaberritza:** ENENKO ARISTI  
**Inprimaberritza:** GERTU (OÑATI).  
**Lege gordailua:** SS-1108/2000  
**ISSN:** 1576-9429



## San Jose eguna, kros eguna

Gure (Irureta-Azkunetarren) etxean kirola beti presente egon da. Korrika, txirrindularitza, mendia,... Aita kirolzale eta praktikatzaile amorratua izanik, hiru alabok jaio ginenetik arnastu eta bizi izan dugu kirola.

San Jose egunari lotutako nire lehenengo oroitzapenak 6 bat urte nituenekoak izango dira. Egunduratsua, neure korrikako estreinaldia, ahizpa bat ere korrika aitari eskutik helduta; aurten ere hainbat eta hainbat haurtxo gurasoen eskutik ikusi ditugun moduan. Ordudanik San Jose egun euritsu eta eder asko bizi izan ditugu. Urduritasun eta ilusioz beteta.

Aitak herriko atletismo taldeko entrenatzaile lanak egiten zituen urte haietan, herriko neska-mutilak ibiltzen ginen, eta beretzat San Josetako krosa egun aproposa izaten zen "ojeadore" lanak egiteko. Interes handiarekin erreparatzen zituen benjamin, alebin eta infantilen sailkapenak; herriko gaztetxoak "fitxatzeko",

nahiz gero beste lasterketa eta txapelketetan arerioak izango zirenak ezagutzeko...

Gogoan dut, baita ere, San Jose eguna gure etxean ospakizun eguna izaten zela. Aittitta Joxeren eguna zen eta familia osoa elkartzen ginen. Amama Patxikaren bazkari goxoa. Postre garaian mahai luzearen gainean Apategi okindegiko pastel gozoak eta, askotan, domina edo trofeoaren bat ere izaten zen. Trofeoak behin baino gehiagotan bete genituen xanpainez, zulorik ez bazuten behintzat!

Ondorengo urteetan eta gaur egunera arte, hiru ahizpok era batean edo bestean orain Zestoako herri krosa denarekin lotuta jarraitu dugu. Aurten 46.a izan da. Antolatzaile lanetan aritu gara era bateko eta beste egin beharretan lagunduz, eta lasterketan ere askotan hartu dugu parte. Aurten, hain zuzen, hiru ahizpok egin dugu korrika. San Jose eguna beti izango da berezia gure etxean. Gainera, orain Iñaki Irureta Memoria- la du izena betiko San Josetako lasterketak eta harrotasunez eta esker onez hartua dugu aitari egindako aitortza. Protagonista da gure aita, baina amak ere izan



Onintza aitari eskutik helduta, korrika.

du bere egitekoa kontu honetan. Neskek kirola egitea oraindik arraro samarra zen garaian, amaren babes eta hauspoa genituen, eta hasieran esan dudana moduan, gure etxean kirola egitea ohikoa eta garrantzi handikoa zen. Gure urduritasunak apaldu eta makina bat lokatz garbitzea ere egokitu zitzaion gure amari, eta konformatuko zen, ziurrenik, garaikurrik ez baina urratu gabeko kokotsak eta belaunburuak ekartzen bagenituen.

Duela urte batzuk Zestoako atletismo taldean gaztetxoak bakarrik ez ginen ibili. Helduagoek ere, eta konkretuki bi emakumek, Luisa Perez eta Arantxa Zigarane, ekarpen ederra egin diote Zestoako atletismoari. Arantxa, nola izan zenuen lehen hartu-emanak atletismoarekin eta esperientzia nolakoa izan da?

*jone irureta*

## pintada.

**BAZKIDE, JASO EZAZU DANBOLINEN POLTSA BERRIA!** ZDanbolinen poltsa berriak atera ditugu bazkideentzat. Azken hogeita bost urteotan gure proiektua aurrera ateratzen lagundu duzuen guztioi nahiz bidean batu zaretenoi eskertzeko, bazkide bakoitzak merezitako oparibitza jasotzeko aukera duzue. Oraindik ez baduzu hartu zurea, gure Kultur Etxeko bulegotik pasa zaitzake aste barruan, 08:00etatik 15:00etara bitartean. Gurekin harremanetan jartzeko, berriz, [info@danbolin.eus](mailto:info@danbolin.eus) helbidera idatzi edo 722 609 265 telefono zenbakira deitu nahiz mezua bidali.

Eskerrik asko, bazkide! Guztion artean Danbolin!

*\*Danbolineko bulegoa Kultur Etxeko beheko solairuan dago. Bi eskailera aldiak pasata, AEK-ren bulegoaren eta Kultur teknikariaren bulegoaren ondoan.*

## GORA TABERNAK!

Jaso berri dut, hau idazten hastearekin batera, asteleheneroko mugikorraren erabilera-txostena. Oraindik aje pixka bat dudala ireki dut oharra, eta larunbatean lagunartean ondo pasatzeari gehitu zaio, egun horretan, mugikorra zazpi minutu bakarrik ibili izanaren albiste. Ez da susmo hutsa, beraz, datuek ere hala diote, kalean eta lagunartean gaudenean nabarmen gutxiago jotzen dugula pantailara. Lau pareten artera geroz eta errazago jotzen dugu, etxera; geroz eta aurrez aurreko harreman gutxiago ditugu. Geroz eta erosketa gehiago egiten ditugu klik batean. Eta aldi berean penatzen gara herriko komertzio eta tabernak ixten doazelako. Ez dago oraintxe erraza horrelako negozio bat aurrera ateratzea eta izugarriko tristura sortzen dit lehen objektuz betetako erakusleio bat orain paper marroiz estalita ikusteak. Ez dut intentziorik, ordea, ixtearen zama hori negozioaren arduradunaren gainean jartzeko. Herriarrona da ardura eta ez du balio erosketak astean behin kate handi batean egin edo burdindegian bezala paper-dendan erosi ahalko genituzkeen gauzak Amazonen erosi, eta gero kafe orduan penatan ibiltzea honek edo hark negozioa itxi duelako.



Baina gaur ez dut idatzi nahi kontsumoaz, edo kontsumo honetaz, behintzat. Badut beste arrazoi potolo bat jendea kalera gonbidatu eta tabernen alde egiteko. Honela dio pasa den martxoan Argia astekarian irakurri nuen artikulua: "Taberna bat ixten denean, atea irekitzen zaizkio eskuin muturrari". Frantzia jartzen du fokua artikuluan aipatzen den ikerketak, baina esango nuke aplikagarria dela beste edozein eremutan ere. Aipatzen du tabernak desagertzen direnean, auzokideen arteko harremanak eteten direla eta gizarte-egiturak aldatzen direla. Azken batean, tabernak, bere on eta txarrekin, sozializatorako, elkarriketarako, harremanetarako espazio ere badira. Eta sozializazio hori etxeetara lekualdatzen denean, polarizazioa eta diskurtso sinplistikak hauspotzen dira. Hala dio ikerketak: "Eztabaidarako espazioak desagertzean, norbanakoari filtro gutxiagorekin helduko zaizkio komunikabide edo sare sozialetako mezuak", eta hor sartzen du muturra eskuinak.

Kalean harremanetarako geroz eta espazio gutxiago izan, etxean gero eta bakartuago gaude, beraz, eta hasierara bueltatuz, neronek nabari dut etxean nagoenean gehiago jotzen dudala pantailara. Eta pantailak, lagunok, sare sozialak, ez dira neutralak. Kontrara, kalean nabilenean, benetako sare sozialak josten ditugu. Beraz, inork galdetzen badit zer gabiltzan tabernan, erantzungo diot: "Ultraeskuinaren aurka borrokatzen ari gara".

## AHAZTURAN EROR EZ DAITEZEN

Ezaguna dugu Mari. Baita Basajaun eta Lamiak ere. Tartalo eta Sorginak. Entzuna izango dute batzuk Atarrabi eta Mikelats anaien kondaira. Hain ezaguna ez den alderdi bati helduko diot, ordea, eta euskaldunon antzinako sinesmenek eta kristautasunak izandako

lehen harremanak azaldu nahiko nituzke gaurkoan. Kristau erlijioa Euskal Herrira IV. eta V. mendeetan gerturatu bazen ere, VII. mendean sendotu zela diote,



hirigunetan aurrena eta nekazal eremuetan ahul eta beranduago. Euskaldunek beren sineskeri eta erritu paganoei luzaroan eutsi zieten, ohikoak zituzten termino asko fede berrira egokitu behar izan zituzten. Adibidea Inko izakia da, euskaldunen erabateko nagusi eta osotasunaren baliokidea zena. Hitz honetatik datorrela esan izan da euskarazko Jainko hitz kristaua, Jaun eta Inko hitzen baturatik sortua.

Beste bitxikeria bat, gure arbasoek Jesukristo izendatzeko Kixmi hitza erabili zutela da, eta tximino baten itxuraz gorpuzten omen zuten. Iraina dela diote historialari batzuk. Hala ere, beste interpretazio baten arabera, mundu magikoaren amaiera eta gizakia ardatz duen sinesmen berri baten arteko trantsizio sinbolikoa adierazten duen figura izan liteke.

Guztiok dakigu Kixmiren sorreran izar handi bat agertu omen zela zeruan. Jentilek, berrietasunaren aurrean, beldur ikaragarri, beren kobazuloko nagusiari galdetu zioten zer zen argi hura. Agureak, itsua izanagatik, horrela esan omen zuen: "Galduak gara! Kixmi sortu da! Gure herriaren akabera!". Hori entzunda, jentilak trikuharri baten gerizpean ezkutatu eta hil ziren betiko. Jose Migel Barandiaranek jasotako hainbat kondairatan ageri den bezala, jentilen desagertzea ez da soilik heriotzaren kontakizuna, mundu-ikuspegi baten amaieraren metafora ere bada. Ondoriozta genezake, beraz, sineskerien arloan ere zapalduak izan ginela euskaldunok. Hala ere, Euskal Mitologiaren aztarna ez da erabat desagertu; gure hizkuntzan, ohituretan eta imaginario kolektiboan dirau, askotan oharkabean bada ere. Aste Santua oporretara joateko aitzakiatzat daukagu gainera...



URTARRILAREN 5EAN EGINDAKO ELKARRIZKETA DA HONAKOA, GABONETAKO OPORRETAN HERRIAN IZANGO ZELA ETA APROBETXATU EGIN BEHAR AURREZ AURREKOA EGITEKO; MARKEL ETXEBERRIA PARISEN BIZI BAITA, MODA MUNDUAN LANEAN. 11:30EAN EGIN DUGU ZITA LIZARRAITZ BASERRIAN. AURRETIK KALERA IRTEN NAIZ ETA OHIKO DEN MODUAN KORAPILATU NAIZ BATEKIN ETA BESTEAREKIN. MEZUA IRITSI ZAIT: "BEANDU ZABILTZA, 10 MINUTU YA". KORRIKA TXIKIAN IRITSI NAIZ. ATEA IREKI ETA PURRUSTADA BOTA DIT, ARRAZOI DU. EZ PENTSA ELKARRIZKETATUEK ERRIETA EGITEA OHIKOA DENIK, BAINA MARKEL ETA BOK KUADRILLAKOAK GARA, UME-UMETAKO LAGUNAK. PENTSA, ASTEBETEREN BARRUAN ETORRI GINEN MUNDURA ETA ERREPIDEAK BANANDUTA BAZEN ERE, PAREZ PARE BIZI IZAN GARA LUZAROAN. ZENBAT ORDU ELKARREKIN... BERAZ, EZ NAIZ ASKO BELDURTU ERRIETAREKIN. EGONGELAKO MAHAIAN GOSARIA PRESTATU DU, PROPIO PRESTATU DU NIRETZAT (USTE DUT PURRUSTADA KAFA HOZTUKO ZEN BELDUR ZELAKO IZAN DELA). ZUKUA, KAFA ETA PASTAK, ETA DISTANTZIARA BIZI DEN LAGUNAREKIN ASPALDIKO PARTEZ SOFA BEREAN GOIZ PASA. FONDOAN, SUABE-SUABE, MARIA CALLAS.

**Badakit askotan azaldu didazula, baina galdetu izan didatenean zertan zabiltzan Parisen ez naiz gai izan erantzuteko. Beraz, ez dakit zenbatgarren aldiz galdetuko dizut: zein da zehazki zure lana?**

Ba, nahiz eta askotan azaldu dudana, normala da kanpotik ulertzea ez izatea erraza. Orain kolekzio eta estudio-koordinazioaren arduraduna naiz. "Estudioa" deitzen zaio diseinatzaileak eta artistak dauden departamentuari, eta "kolekzioa" da denboraldi bakoitzean ateratzen den arropa multzoa.

Nire lana da, batez ere, zuzendari *kratiboak* zer nahi duen jasotzea eta hori talde osoari ondo transmititzea. Horretarako *fitting*-ak egiten ditugu: modeloak etortzen dira, arropak probatzen dituzte, eta zuzendari *kratiboak* esaten du zer aldatu; luzeagoa, motzagoa, ehuna aldatu, edo zuzenean kendu... Nik hori guztia apuntatu eta koordinatzen dut: diseinatzaileekin, jostunekin... denok gauza bera ulertu dugula ziurtatzeko. Azken batean, arropa bakoitzarentzako plan moduko bat prestatzen dut. Sei *fitting* inguru egiten dira *kolekzio* bakoitzean, eta pixkanaka eraikitzen da guztia azken desfilea iritsi arte.

**Zuzendari *kratiboak* zer nahi duen jasotzea dela zure lana diozu; baina nor da edo zer da figura hori?**

Jendeak erraz ulertzeko modurik sinpleena da desfilearen amaieran agertzen den pertsona dela esatea, publikoa agurtzera ateratzen den hori. Diseinatzailea da, bai, baina ez bakarrik hori: markaren burua da. Azkenean, marka bakoitzean diseinatzaile asko daude lanean, baina zuzendari *kratiboa* da guztien gaineretik dagoena, erabaki nagusiak hartzen dituena eta markaren irudi osoaren arduraduna. Etxe horrek kanpora proiektatzen duen identitate guztia bere gain dago. Bere gaitetik ez dago inor sormen mailan; enpresan jabeak egon badaude, noski, baina normalean konfiantza osoa jartzen dute zuzendari *kratiboaren* gan.

Lehen, izen handiak, Cristobal Balentziaga edo Christian Dior bezalakoak, beraiek ziren markaren sortzaileak eta jabeak aldi berean. Gaur egun, ordea, enpresa horiek talde handietan daude banatuta, adibidez LVMH edo Kering bezalakoetan. Horregatik, gaur egun marka horien buruan jartzen dituzte beste diseinatzaile prestigiodun batzuk, zuzendari *kreatibo* gisa, markaren ondarea bizirik mantentzeko. Haien lana da artxiboari eta historiari begiratzea, markaren esentzia ulertzea, eta, aldi berean, zerbait berria proposatzea. Azkenean, hor dago giltza: iragana errespetatuz etorkizunerako proposamen berririk egitean.

### **Abenduaren 22an bidali zenidan mezua, “Ya firmatu det Givenchy-rekin”. Nor, zer da Givenchy?**

Givenchy moda etxe historiko bat da, eta oso lotuta egon zen Cristobal Balentziagarekin. Esaten da nolabait haren ikaslea izan zela, eta oso harreman estua zutela. Gaur egun, etxe bezala interesgarria da berriro artisautzara itzuli nahi duelako. Azken urteetan moda asko industrializatu da, baina orain berriz balioa ematen ari zaio eskulanari.

### **Aurretik, ordea, beste etxe batzuetan ere ibili zara, ezta?**

Egia esan, nahiko modu naturalean joan da dena, ia kasualitatez. Nire ibilbidea Loewe-n hasi zen, gero Balenciaga-ra joan nintzen, eta orain Givenchy-n nago. Pixkanaka mugitu naiz etxe batzuetatik besteetara, baina guztiek badute komunean gauza bat: artisautzaren balioa. Frantsesez *savoir-faire* deitzen zaio horri. Marka horietako tailerretan badago benetako jakintza hori: patroi-gileak alde batetik, jostunak bestetik. Bi lan ezberdin dira, baina elkarren osagarri.

Tailer handiak dira, eta lan hori guztia belaunaldiz belaunaldi transmititu da.

Azken urteetan, hala ere, pixka bat galdu egin da hori. Askotan merkeagoa delako ekoiztea Italiako fabriketan, teknologia oso aurreratua dute eta kalitate handiko arropa egiteko gaitasuna. Baina orain badago joera berriro hasierako modura itzultzeko, behintzat lehen prototipoetan: tailerrean sortu, bertan landu eta esku lan hori berreskuratu.

Givenchyn, adibidez, hori bultzatu nahi dute. Etxera etorri den zuzendaritza berria (Sarah Burton, lehen Alexander McQueen-en egondakoa) ikuspegi horren aldekoa da. Bereziki gustatzen zaio *tailoring*-a, hau da, egitura duten piezak: trajeak, jakak... Eta helburua da hori berriro indartzea, tailerretan jende ona bildu eta artisautza hori sustatzea. Eta horregatik, besteak beste, esan nuen baietz.

### **Balenciagan aritu zinenean esaten al zenuen Balentziagaren “alboko herrikoa” zinela?**

Bai, etengabe. Harrotasun puntu batekin gainera. Batzuek bazekiten nondik zetorren, beste askok ez. Azkenean, Cristobal Balentziaga Parisen finkatu zen, eta marka ere han kokatzen da. Baina nik beti azpimarratzen nuen euskalduna zela, Getariakoa.

### **Cristobal Balenciaga telesaila ikusiko zenuen, ezta? Ze sentsazio?**

Ikusi dut, bai. Orokorrean ondo egina dago, batez ere girotzea: espazioak, tailerretak, dena oso ondo landuta dago. Baina ez zait gustatu Balentziaga pertsona esentriko moduan erakustea. Nire ustez, kontrakoa zen: oso langilea, metodikoa, diskretua. Ez zen bohemio edo artista zoro horietako bat. Serieak, nire ustez, gehiegi eraman du irudi hori muturrera. Eta pena pixka bat eman dit.

### **“ARTISAUTZA BERRESKURATZEKO GOGOA DAGO BERRIRO MODA ETXE HANDIETAN”**

### **Gutziz lotuta dago zure lana joskintzaren munduarekin; baina zuk josten al duzu?**

Ez, nik ez dut josten, baina egia da hor zaudenean beste begirada bat garatzen duzula. Nik badakit pieza bat noiz dagoen zuzendari *kreatiboari* erakusteko prest. Nik ez daukat pieza egin duten haiek duten zehaztasun tekniko hori, baina detaile batzuk ikasi ditut: barrutik nola dagoen josita, forrua ondo jarrita dagoen ala ez, etiketa txukun dagoen... Badakit, adibidez, gauza jakin batzuk ez zaizkiola gustatuko zuzendari kreatiboari.

Halako xehetasunak antzematen ikasi dut: barrena zuzen dagoen, piezak orekatuta dauden... baina beti ere modu xume batean.

Balenciagako Prêt-à-porteko desfile bateko entsegua



Neuk ere beti ikasi behar dudala, baina azkenean ez dut inoiz hartzen josten ikasteko denborarik. Aipatzen dituzun kontuak gure amak, izekok, amamek... nik baino askoz ere hobeto ulertu eta baloratuko dituztela iruditzen zait.

Ni asko gogoratzen naiz, adibidez, Balenciagan nengoenean, pentsatzen nuela nire amamari zenbat gustatuko zitzaion han egiten den lana ikustea. Izan ere, amamak, inolako eskolarik gabe, izugarri ondo josten zuen. Tailerretan ikusten duzu nola egiten duten lan: patroi-gileak daude, modeloak etortzen dira, eta haien gainean jartzen dute *toile* deitzen den tela fin eta merkea. Hortik hasten dira, diseinatzaileak esandakoa interpretatzen, pixkanaka forma ematen diote. Diseinatzaileak esaten du: "hemen bolumen pixka bat gehiago", edo "hau atzerago"... eta hori guztia patroian islatzen joaten dira. Gero jostunek hartzen dute hori, eta beste maila batean lantzen dute: xehetasun txiki-txikiak, barrutik nola geratzen den, haria ez dadin agerian geratu... oso lan fina da. Azkenean, dena oso profesionalizatu dago.

Eta han nengoenean pentsatzen nuen amamari zenbat gustatuko zitzaiokeen hori ikustea, zein polita irudituko zitzaion. Bere saltsan egongo zen erabat.

**Josi ez, baina diseinatu bai, ala? Oraindik buruan ditut umetan marrazten zenituen diseinuak. Zure koaderno haiek...**

Bai, txikitatik gustatzen zitzaidan diseinatzea. Zapatak, soinekoak... ondo pasatzen nuen. Baina gaur egun konturatzen naiz diseinatzea ez dela jendeak pentsatzen duen hori. Diseinatzaileak ez dira hutsetik hasten; askotan erreferentzia batetik abiatzen dira, argazki bat, artxiboko pieza bat... eta hortik interpretazioak egiten dituzte.

**Zuen amak kontatu zidan aurreko batean nola umetan gure amari esaten omen zion jaunartzea egingo ez nuenez agian soineko zuria jantzteko pena izango nuela, baina lasai egoteko, zuk etxeko izara zuriekin askotan egiten zenizkidala era horretako soinekoak. Ikaragarritzko grazia egin zidan.**

Ez naiz zehazki gogoratzen, baina bai gogoratzen dut mozorroekin eta arrokekin jolasten ginela. Nik jolas moduan bizi nuen, baina atzera begiratuta, badirudi hor bazegoela zerbait.

**Kontu horiek umetako jolas edo fantasia bezala gogoratzen ditut nik, baina zure kasuan orain eguneroko lanak dira.**

Bide bat izan da. Une puntual batzuk daude, *fitting* batean adibidez, eta pentsatzen duzu: "hau da nik nahi nuena". Gero, ordea, kanpotik denak glamourra dirudi, baina egunerokoan lana da, eta batzuetan monotonoa ere bai. Hala ere, badaude momentu batzuk musika fondon, modelo bat soinekoa probatzen, tentsio hori... horrek konpentsatzen du.

Balenciagaren 54. Kolekzioko backstagean bi modelokin



**Urteak daramatzazu Europako hainbat hiriburutan bizitzen. Zestoan ez zenuen ikusten zure burua?**

Banekien kanpora joan behar nuela. Londresen ikasi nuen, gero Parisen egon nintzen, eta han ikusi nuen benetako aukerak zeudela. Moda munduan sartzeko, batez ere goi mailan, kanpoko formakuntza ia beharrezkoa da. Parisen eta Londresen dagoen espezializazioa hemen ez dago oraindik maila berean.

**Baina aldi berean herriarekiko lotura handia duzula uste dut. Nola bizi duzu?**

Oso presente daukat, eta faltan botatzen dut. Askotan pentsatzen dut zein ondo egongo litzatekeen herria Parisen egongo

balitz. Azkenean, familia eta lagunak behar ditut. Horretan nahiko sentibera naiz. Etorrizunean hemen ikusten dut nire burua, zailantzarik gabe.

**“KANPOTIK  
GLAMOURRA  
DIRUDI, BAINA  
EGUNEROKOAN  
LANA DA, ETA  
BATZUETAN  
MONOTONOA ERE  
BAI”**



Naomi Campbell desfilatzen;  
Markeli besotik heldu zion egunean



Balenciagaren goi joskintzako desfilea  
baino lau egun lehenago prestaketa lanetan



Parisko museo bateko  
teilatuan lagun batekin



### **Azken aldi asko hitz egiten da *sexilioaz*. Zure burua hor kokatuko zenuke?**

Nire kasuan ez. Nik lanagatik joan behar izan dut. Baina ulertzen dut fenomenoak. Garai batean, askatasuna bilatzeko beharrezkoa zen hiri handietara joatea. Orain agian gutxiago, baina oraindik existitzen da neurri batean.

### **Historikoki, moda eta diseinua homosexualitatearekin lotu izan dira. Zer diozu?**

Egia da historikoki goiko postuetan gizon homosexual asko egon direla. Baina gaur egun asko dibertsifikatu da: emakume gehiago, heterosexual gehiago... Hala ere, egia da oraindik proportzioa handia dela. Zergatik? Ez dakit oso ondo azaltzen. Agian historia kontu bat da, edo testuinguru sozialarena.

### **Beste mila kontuk bezala modak kontraesanak sortzen dizkit. Zuri, ez?**

Bai, noski. Adibidez, "luxu" hitzak berak kontraesana sortzen dit. Baina aldi berean, lanaren atzean dagoen artisautza eta dedikazioa ikusten dudanean, beste modu batera baloratzen dut.

### **Zer gustatuko litzazuke jendeak ulertzea horrelako marka baten atzean dagoen lanaz?**

Jendeak askotan pentsatzen du moda etxe baten atzean diseinatzaile bakar bat dagoela, ideia batetik arropa sortzen duena, baina errealitatea askoz konplexuagoa da.

Goi joskintzan edo *haute couture*-n lan egiteko modua oraindik oso tradizionala da, Cristobal Balenciagaren garaian bezala: patroigileak, jostunak eta eskuzko lana funtsezkoak dira, eta baldintza oso zorrotzak behar dira *Chambre Syndicale de la Haute Couture*-k onar dezan. *Prêt-à-porter*-ean, berriz, logika asko alda-

tzen da. Ez da bakarrik diseinatzea: kontuan hartu behar dira materialak, ekoizpena, kostuak eta banaketa ere, pieza hori mundu osoko dendetara iritsiko delako eta neurri guztietan egon behar duelako.

Azkenean, gustatuko litzaidake jendeak ulertzea hau guztia lan kolektiboa dela eta jende asko dagoela pieza bakoitzaren atzean, eta askotan ikusten ez den horretan dagoela benetako lana.

### **Lanean pasa duzun momentu gogorrenetarikoa bat?**

Egia da momentu gogorak badaudela: presioa, epeak, tentsioa... Baina gehiago gogoratzen ditut momentu onak, agian horiek direlako aurrera jarraitzeko indarra ematen dutenak.

### **Zure ametsen batean agertzen zen eta egia bihurtu den momenturen bat?**

Lehenengo aldiz *fitting* garrantzitsu batean sartzea, zuzendari *kreatiboarekin*... hori ederra izan zen. Orduan pentsatu nuen: "hemen nago". A bueno... eta inoiz ahaztuko ez dudan momentua, orduan pentsatu nuena, "kito, hil naiteke", Naomi Campbell-ek besotik heldu minduenenakoa. Kar, kar, kar!

### **Zer aholku emango zenioke moda-munduan sartu nahi duen norbaiti?**

Kanpora joateko aukera badu, aprobetxatzeko. Ingelesa eta frantsesa ikasteko, eta pazientzia izateko. Ez da erraza sartzea, baina posible da.

amaiur aristi

# ZESTOAR MODERNOAK

BETIDANIK EGON DA ZESTOAKO JENDEARI BURUZKO ESTEREOTIPO ZABALDU BAT: IREKIAGOAK GARELA, MODERNOAGOAK, EZOHIKOAGOAK... EZ DA ERRAZA HORI ARGITZEA ETA EGIA DEN JAKITEA, BAINA ZERIKUSIA IZAN DEZAKE GURE HERRIAN DUELA EHUN URTE INGURU IZAN ZIREN ALDAKETEKIN, HISTORIALARIEK "MODERNITATEA" DEITZEN DUTENAREKIN. BATEZ ERE, DONOSTIAN ETA KOSTAKO HERRIETAN GERTATU ZIREN ALDAKETA BERRI HORIEK, BAINA ZESTOA ERE EZ ZEN URRUTI IBILI. BETIKO BIZIMODU TRADIZIONALARI MASA-KULTURA BERRI BAT GAINERATU ZITZAION GARAI HARTAN: BATETIK BESTERA MUGITZEA ASKO ERRAZTU ZEN, KANPOKO GAUZA BERRIAK EZAGUTZEKO AUKERA HANDIAGOA ZEN, ETA ZINEA, KIROLA, MUSIKA MOTA BERRIAK... PIXKANAKA SARTZEN JOAN ZIREN HERRIAREN DINAMIKAN. ZENBATERAINO MOLDATU GINTUEN HORREK GUZTIAK?

Hemen aletzera goazen garaian, hau da, duela ehun urte, Zestoak 3.000 biztanle eskas zituen, eta horietatik 1.200 inguru bizi zen herrigunean. Zestoar gehienak baserriko lanetik bizi ziren, gutxiengatik industriatik (burdingintza, eta, batez ere, zementugintza), eta gainontzekoak merkataritza eta turismo-tik. Ramon Cortazar arkitekto ezagunak behinola esan zuen bezala, Zestoa Gipuzkoako beste nekazari-herririk bat gehiago izango zen, ia batere hazkunderik gabekoa, ur sendagarrien ustiapena eta aberastasunarengatik izan ez balitz.

Duela ehun urte, zestoarren mentalitatea nahiko tradizionala zen artean. Kontserbadorea eta erlijioak moldatua. Primo de Riveraren diktadura garaia zen (1923-30) eta zentralismoa eta autoritarismoa gailentzen ziren, baina Errepublikarekin batera (1931-1936) aldaketak etorriko ziren. Karlismoa zen nagusi hasiera batean, Zestoa, baina Eusko Alderdi Jeltzalea indarra hartzen joan zen 1930eko hamarkadan.



Zestoan, batez ere turismoa izan zen berrikuntzaren eta aldaketaren eragile. XIX. mendearen amaiera aldera, 1.000 urzale eskas etorri ziren Zestoara ur-denboraldian (ekainak 15 - irailak 30). Batik bat, Bainuetxea eta Artetxe zeuden orduan. Oiartzabal zabaldu zen urtean (1908), 2.300 urzale inguru etorri ziren. Handik hogeita bat urtera, berriz, (ordurako 12 hotel bazeuden) ia 6.000 urzale. Atera kontuak zer eragin izango zuten 6.000 turistek, hiru hilabete pasatxoko denboraldian zehar, eta herrigunean 1.200 zestoar bizita.

Hotel garrantzitsuenetara (Bainuetxea eta Oiartzabal), Espainiako elitea etortzen zen: goi-goi mailako agintariak (Manuel García Prieto gobernuburuak bainuetxean hartu izan zuen ostatu), politikariak, enpresariak, elizgizonak... Zestoako bainuetxea, osasun-leku ez ezik, festa eta plazer-leku bikaina ere bazen. Zinea eskaintzen zuten, gimnasioa zeukan, prentsa eta aldizkari aukera zabala, gau-jai bikainak antolatzen ziren... Eta, jakina, herritar arruntek bainuetxean hola-hala sartzerik ez bazuten ere, zestoar handikiek eta hango ehunka langileek dena ikusten zuten: hango arropak eta moda, ibiltzeko modua, hango festak... Eta turistak beraiek ere atera egiten ziren herrira, paseatzera, zerbait hartzera (kafetegi ospetsuenak Alkorta eta Kerejeta ziren) edota jantziak eta boterea erakustera.

Horrela joan zen sortzen, pixkanaka, herrian halako zera bat: klase eta maila guztietako jendearekin tratatzen ohitutako jendea, gauza berriekiko irekia...

#### GARAIKO 'ADELANTUAK' PENTSAERA BERRI BATEN TRANSMISORE

Urola trena martxan jarri zenean (1926) asko erraztu zen zestoarren joan-etorria, esate baterako, lana beste herri batean egiteko edo, besterik gabe, aisialdirako; garai hartan, asko erraztu zen hondartzara joatea, inguruko herrietara igande-pasa joatea... Donostiara lau bidaia egiten zituen trenak egunean, eta itzultzeko, berriz, sei. Bizpahiru ordu behar izaten zituen Arroatik Donostiara joateko, baina ez zen beste munduko eragozpena hara joan eta hango gizarte modernoa ikusteko. Joan-etorri horrek, bistakoa denez, izugarri ezagutarazi zituen beste herrietako ohitura eta gauza berriak. Bat bakarrik aipatzearen, Donostiakoa oinarri hartuz egin zuten lehenengo aldiz danborrada Zestoan (1930). Gauza berrien beste transmisore aparta telefonoa izan zen. Gipuzkoako Telefono Sarea Estatuko sare osatuena zen 1930eko hamarkada atarian. Arroan (tren geltokian) eta Aizarnan, 1922an instalatu zen telefono probintziala, eta ordurako martxan zegoen herrigunean eta bainuetxean.

1920ko hamarkadan, irratia ez zegoen artean oso zabaldua baina urte gutxian sartuko zen etxeetara. Garai hartako komunikabide nagusia prentsa zen. Herritar gehienek *La Constancia* (ikuspegi integrista), *El País Vasco* (autonomista), *Excelsior* (kirol egunkaria) eta horrelakoak irakurtzen zituzten. Gutxi batzuk erosten zuten *La Voz de Guipúzcoa* (errepublikanoa). 1930eko hamarkadan, diktadura amaitzearekin batera, abertzale giroko egunkariei (*El Día*, *Euzkadi*...) ireki zitzaizkien atea.

Egunkariez gain, sekulako arrakasta izan zuten aldizkari grafikoek (*Novedades*, *Estampa*, *Blanco y Negro*...), eta oso eskura zeuden gure hoteletan. Toki berriak eta exotikoak, janzkera berriak, kirol berriak... nabarmentzen ziren. Hasiara batean, elite batentzat erreserbatuak zeudenak herritar arrunten eskueran jarri ziren. Urte horietan, kazetaritza grafikoak ilustratzaile eta idazle onenak fitxatu zituen, eta oso aldizkari erakargarriak argitaratzen ziren.

#### ZINEA

Aipagarria da, zinea Parisen lehen aldiz eskaini (1895) eta hamabi urtera, Blas Alkorta Zestoara ekarri zuela. Handik aurrera, zinea ez zen gauza arrotza izan zestoarrontzat. Esate baterako, "Bihar, Cristina erregina *Christus* filmaren emaldian izango da [Madrilgo] Gran Teatron", zioen egunkari batek 1916ko apirilean, eta, abuztuan, pelikula huraxe Zestoako bainuetxean eskaini zuten. Ez zen emanaldi irekia izan, ikuspegi elizkoia zuen (Aita Santuak ontzat emandako pelikula bakarra, dio prentsak), baina seguru ikaragarritzko lilura eragin ziela, bezeroei ez ezik han hara eta hona ibili beharko zuten zerbitzariei ere.



► Zinea, pixkanaka, zabaltzen joan zen gizartean eta eragin izugarria izan zuen modan eta gizarte-ohituretan. Donostian areto mordoxka zeuden 1920ko hamarkadan. Zestoako bainuetxea berehala jabetu zen zinea oso tresna bikaina zela publizitaterako, eta 1928an establezimendua eta herria sustatzeko dokumental bat egin zuten.

1930erako zabalik zen zine-aretoa Zestoan. Lehendabizi, Cine Simón zuen izena, eta Felix Lizaso gaztea zen haren jabea. Hurrengo urtean Luistarrek hartu zuten, eta Onbide jarri zioten izena. Uda garaian, egunero eskaintzen zituzten emanaldiak, eta saio bereziak herriko jaietan.

#### KIROLA

Zestoan, duela ehun urte, kirol arloa tradizionala zen oso. Ohiko pilota, harri-jasotzea, aizkora, ahari jokoak, idi-probak... ziren nagusi orduan. Baina, pixkanaka, kanpotik zetozen beste kirol batzuk ere - prentsak sports deitzen zien - hasi ziren sartzan herrian. Txirrindularitza da horietako bat, gaur egungo zaletasuna nondik datorren ondo erakusten duena. Euskal Herriko Itzulia 1924an hasi bazen, hurrengo urtetik aurrera bazuen bere tokitxo txirrindularitza lasterketak Zestoan. "Herriko gazteentzat bakarrik", gure herrian bizikleta nahiko zabaldua zegoen seinale. Tenisak ere bazuen bere tokitxo gure herrian.

Kultura fisikoak garrantzi handia hartu zuen 1920ko eta 1930eko hamarkadetan eta ordutik dator gaurko afan hau. Adibide bat jartzeko, 1933. urtean Blas Alkortak eta beste herritar batzuek udalari eskaera bat egin zioten: ariketa fisikoa gero eta beharrezkoagoa bihurtzen ari zela, baina herrian ez zegoela gimnasia praktikatzeko lekurik, esaten zioten. "Izan ere, bizitza modernoko jarduera desberdinak aztertzen baditugu, nabarmena da Barreiro eta Gamborena anaiak futboleak, Uzcudun boxeoa eta Atano, Echave eta abar pilotan, horiek bezalako gizonak heziketa fisiko sendo bati esker nabarmentzen direla. Eta zergatik? Ba, zalantzarik gabe, gazte garaian gimnasia egiteko baliabideak zituztelako. Oraintxe bertan, jauna, gazte asko daude boxeoa aritzeko gogo bizia dutenak, hori baita, gaur egun, emaitzarik handienak ematen dituen ariketa fisikoa, eta hala ere, horretarako ezaugarri bikainak izan arren, ezin dute behar bezala entrenatu gimnasia bat ez dutelako". Eman behar gaurko idatzi bat ari gara aipatzen, ez orain dela mende batekoa.

Alkortaren idatziak beste alderdi bat ere aipatzen du:

"(...) Bertako haurrek ere ezin dute ariketa hori egin, hain onuragarria dena garapen fisikorako —hau da, haur sendo eta ondo garatuak izateko, edozein erronkari aurre egiteko prest dauden gorputzak izateko— alegia, haur eta gazte osasuntsu eta sendoak izateko".

Bistakoa den bezala, kirola izan zen, zinemarekin batera, mentalitate moderno berri baten iragarle garrantzitsua. Hori bai, kirolari dagokion pasarte honetan mutilez eta gizonez ari ziren, jakina, ez emakumez.

#### MUSIKA ETA DANTZA

Orain arte aipatu ditugun fenomeno berriak nahiko minoritarioak ziren artean Zestoan, eta, ondorioz, ez ziren hain arriskutsuak pentsaera tradizional edo betikoa-arentzat. Bai, ordea, musika eta dantza, edonoren esku zeudenak eta oso "arriskutsuak" kontsideratzen zituztenak, nola Elizak hala udal agintariek. Ikusi besterik ez dago zer lan, zenbat buruhauste eta zenbat eztabaida izan zituzten herriko erakundeek egoera kontrolpean edukitzeko.

Eztabaida handiak izan ziren kafetegi eta tabernetan instalatzen ziren musika-aparatuekin ("aparatos mecánicos o manejados mecánicamente con cilindros musicales"). Esate baterako, 1919ko urte hasieran eskatu zuen Arroako tren geltokiko tabernako arduradunak, Modesto Fernandezek, aparatu horietako bat instalatzeko baimena. Udal agintari batzuk alde zeuden baina beste batzuk zerga handia jartzea proposatzen zuten, horrela etsi eta amore eman zezaten. Eztabaidaren erdian, Arroako apaiza eta auzoko bizilagun batzuk sartu ziren. "Gauetz atsedena eta egunez bakea eta moralitatea" eskatzen zuten, eta - zioten - hori aintzakotzat hartuta, aurreko udalek bostehun pezetako zerga ezartzea adostu zutela musika-gailu mekaniko bakoitzarentzat. Urte hartako aurrekontuan, ordea, hogeita bost pezetako zerga ezarri zela, eta kopuru hura hutsala zela, eta horregatik zegoela martxan Arroako geltokikoa. Horrela bada, "gailu horiek herrietako bakean eta moralitatean dituzten ondorio kaltegarri argiak kontuan hartuta", berriro zerga bostehun pezetara igotzea eskatzen zuten ("eta ez, hain zuzen, udal-funtsak handitzeko, baizik eta establezimendu publikoetatik desagertzeko, imitatze moduko adibidea delako eta probintziako herri askok hartu dutena delako).

Ikusten denez, beste herri batzuetan, zirt-zart amaitu zuten "arazoarekin" eta hemen ere, apaiza tarteko izaki, laster erabaki zuten udal agintariek: "Eztabaida labur baten ondoren", zerga bostehun pezetara igotzea onartu zuen udalbatzak. 1920ko urte hasieran, Modesto Fernandezek udalari jakinarazi zion bere musika-gailua kentzera zihoala, "jada ez zuelako nahiko irabazi ematen". Baina ez ziren hori bukatu gorabeherak. Musikak eta dantzek zeresan ugari emango zuten artean.

#### KONTUZ FOX-TROTAREKIN

Zestoako banda, jakina denez, 1910eko hamarkadan sortua zen baina urte batzuk martxan egin eta gero bertan behera geratu zen. 1926. urtean berriro martxan jartzeko asmoa azaldu zuen udalak. Beharrezkotzat jotzen du



CESTONA. — La mecanoterápica del Balneario.

Felisa Sorreluz. — Cestona.



alkateak, zeren-eta inguruko herriek bai baitute banda eta “berezkoa baita gazteek, gaur egun mugitzeko duten erraztasunarekin, herritik alde egitea igande eta jaiegunetan, horrek dakarren arazo moralarekin; izan ere, etxeoengandik urrun, askeagoak baitira eta gutxiago zelatatuak”.

Alkateak, eta alde zeuden beste zinegotzi batzuek, beharrezkoa ikusten zuten “udarako banda” sortzea, eta uste zuten Zarautz, Zumaiia edo Debaren eredia jarraitu behar zela, eta ez Azpeitiko edo Azkoitiko eredia, “zeinak ez duten udako bizitzarik”. Beste batzuk, ordea, banda birsortzearen aurka zeuden, musika eta dantza (lotua) bekatutzat hartzen zituztelako. Eztabaida izugarria izan zen eta alkateak berdinketa hausteko botoa erabili behar izan zuten. Gauzak bero zeuden, beraz, eta 1928ko maiatzeko jaiak pasa eta berehala, herriko *bailableak* zirela-eta, gatazka izan zen berriro udalean. Alkateak denboraldi baterako eten egin zituen *bailableak* eta sekulako arazoak sortu ziren herrian.

Zunzunegi zinegotziaren jarrera garbia zen: ez zen dantza lotuaren aldekoa, eta are gutxiago “hemengo plazan dantzatzen den dantza zorabiagarri horren aldekoa”; musikaren aldekoa zela, zioen, “baina ez dantza erotikoaren aldekoa”. Azpeitia eta Azkoitia hartzen ditu eredu, baina bistan da alkatea ez zela eredu horren aldekoa, haiek ez dute eta udako bizitzarik (*vida veraniega*). Ramon Izeta alkatea, berez, ados zegoen Zunzunegirekin, baina hark ondo asko zekien musikariak dantza sueltoak bakarrik jotzearen kontra zeudela, eta horregatik erabaki zuen alkateak *bailable* denak bertan behera lagatzea, ea hartara herritarrak otzantzen ziren. “Baina protestak halako mailara iritsi dira - dio alkateak -, ez baita posible eskatzen dutena ez ematea”.

Horrela bada, bakeak gehiago balio zuela eta, zera proposatu zuen alkateak: pieza suelto bat jotzea eta bestea lotua. Eta horixe erabaki zen: “Bandak jo dezala pieza bat sueltoa eta beste bat lotua, baina angelusaren ordurako, hau da iluntzerako, dena bukatzeko baldintzarekin. Horretarako, erlojuaren arduradunari agindua eman go zaio kanpaiak iluntzearekin batera jo daitezten”.

Iritsi zen bakea, dirudienez, baina hemen udal zinegotzien errematea: “Nolanahi ere, [...] ez dezatela jo eskandalosotzat hartzen diren dantza bat bera ere, esate baterako fox-trotak, charlestonak, tangoak eta abar, kontu horietan bandako zuzendariaren irizpidea jarraitu beharko dutelarik eta, behar bada, alkateari jakinaraziz”.

Ikusten da zer mailatan zebiltzan orduko zestoarrak.

\*\*\*

Zenbateraino moldatu gintuen horrek guztiak? Erantzuteko zaila da, eta lekurik gabe geratu gara. Nolanahi ere, argi dago guk harreman handiagoa eta zuzenagoa izan genuela “modernitatea” deitzen den aldaketa haiekin eta aldaketa horietan parte hartzen ari ziren pertsonekin, eta inguruko beste udalerrri batzuetan baino eragin handiagoa izan zutela gudan. Modernitateak Zestoan eragin handiagoa izan zuela esan daiteke. Onerako edo txarrerako, hori ere esan behar da, zeren-eta, adibidez, horrek guztiak zerikusia izan zuen herriguneko zestoarren erdalduntzearekin, hau da, euskaraz baino gehiago gazteleraz erlazionatzeko joerarekin, eta baita beste fenomeno negatibo batzuekin ere. Baina beste batean heldu beharko zaie arantza horiei.

Fernando arballus

# ZESTOAN

*uste baino gehiago*

## Janaridendak

 **ELORZA**  
janaridenda  
943 147 660

**ARRAINDEGIA**  
**KONTXI**  
ZESTOA 943 148 247  
AZPEITIA 943 811 946

 **miantxa**  
denda  
Tlf 943 147 015

 **Pakete Okina**  
943 148 428

 **EROSKI** city  
zurekin  
943 062 861

 **UZKUDUN**  
harategia  
Erdikalea, 5  
Tel. 943 147 023  
ZESTOA

## Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110

 **mairi**  
LOTERIA  
ESTANKOA

 **LOTXOLO**  
Tel. 943 147 133

 **Izarraltz**  
Kudeaketa informatikoa

## Etixerako osagarriak

 **ONK**

943 147 081-647 683 643

## Arropa eta oinetakoak

 **IRAOLA**  
ZAPATEGIA  
617 269 408

## Edertasuna eta ongizatea

*beatriz izeta*  
943 148 322

 **KERALA**  
ongizate txokoa  
679 885 173



**ZESTOA**  
**ZURETZAT**

*Euskadi, auzolana, bien común*  
 **EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

  
ZESTOAKO UDALA

# XI. ARDO DASTAKETA

**Maiatzak 23**  
12:30-14:30

**ZESTOAN**

**Kiroldegiko  
aterpean**

**UPATEGIAK**

Aimarez \* J. Guzmán Aldazabal \* Rioja Bordón \*  
B. Mazuela \* B. Aitaren \* B. Ondarre \* B. Tritium \*  
Garcia Olano \* Monteabellón \* Ondalan \*  
Lapazaran \* R. de la Piscina



**PINTXOAK**

Exclusivas Mardu \* Maisor \* Basatxerri \* Floridako Merkatua

2026/05/05 **Frankopoleon. Gureak egin din**  
(KulturArteCo.) antzelana  
18:30 Kultur Etxea

2026/05/12 **"Euskara ez du iraunaraziko  
independentziarik gabe"**  
(Euskal Herrian Euskaraz) solasaldia  
18:30 Alondero

2026/05/19 **Gorrotokrazia: indarkeria matxista** (Astindu  
armaiyuek), **islamofobia** (Bidaya), **euskarafobia**  
(Hizkuntza eskubideen behatokia)...  
solasaldia  
18:30 Alondero

2026/05/26 **Esnatu, gure hizkuntzak har dezan arnas**  
(UEMA) hitzaldia  
18:30 Alondero



**euskararen loraila**



## GIRO APARTA "ETXEAN" LIBURUAREN AURKEZPENEAN

Hitzetik Loratu egitasmoaren baitan, literaturaren bueltako askotariko saioak egin dituzte martxoan eta apirilean zehar. Hilaren 16an, hain zuzen, jendez bete zen atzo Liburutegia "Etxean" liburuaren aurkezpenean. Saioak ohiko aurkezpen formatutik harago jo zuen, izan ere, drag emanaldi baten bidez ekarri zuten liburua publikora.


Liburutegia antzetzoki bihurtu zen, eta antzerkia, musika eta kontakizuna uztartuz, liburuaren unibertsoan murgildu zituzten bertaratutako haur zein helduak. Saioak musikaren eta soinuaren laguntza izan zuen uneoro, eta amaieran ikusleak ere dantzan jarri zituzten, giro alai sortuz.



## NAROA AGIRREK URREZKO HIRU DOMINA IRABAZI DITU MUNDUKO TXAPELKETAN

NarOA Agirre Arrogoiko pilotariak Esku Pilotako Nazioarteko Konfederazioaren Munduko Txapelketa irabazi du euskal selekzioarekin, Mendozan (Argentina). Lau modalitateetatik hirutan urrezko domina eskuratu du Arrogoiko pilotariak eta bestean, zilarrezkoa. Agirrek ez du finaletan parte hartzerik izan, baina bai kanporaketa faseko partidetan, finalera iristeko ezinbestekoak izan diren norgehiagoketan.

Agirreraren hitzetan, emaitzen aldetik "izugarri ondo" aritu dira, baina azpimarratu du atzean lan handia egon dela: "hilabete batzuk pasa ditugu astean hiru entrenamendu egiten, eta nahiz eta kanpotik erraza dirudien, kostatakoak izan dira garaipenak".



## ZESTOA ETA UREPELE OINEZ LOTZEN DITUEN IBILBIDEAREN WEBGUNEAREN AURKEZTU DUTE

Zestoa eta Urepele oinez lotzen dituen ibilbidea jasotzen duen zestoaurepele.eus webgunea aurkeztu dute. Zestoa eta Urepele arteko senidetze proiektuaren baitan aurreikusitako bost helburuetatik azkena bete dute.

Xalbapide izena jarri diote bi herriak lotzen dituen ibilbideari, baina bi aukera daude ibilbide hori osatzeko: Uztapide bidea eta Xalbador bidea. Biek tarte amankomunak dituzte, baina toki ezberdinetatik igarotzen dira. Zestoa Manuel Olaizola Urbieta Uztapide, eta Urepeleko Fernando Aire Etxart Xalbador bertsolari eta elkarren adiskide handi zirenen omenez jarri dizkiete izen horiek bi bideei.

Webgune berria ez da soilik ibilbidearen informazioa eskaintzeko izango, Zestoa-Urepele senidetzearen inguruko albisteak biltzeko ataria ere izango da.



## URAREN ETA ZABORRAREN FAKTURA ORDAINAGIRI BAKARREAN IRITSIKO DA ZESTOAKO ETXEETARA

Zestoa ur hornikuntzaren kudeaketa osoaz Gipuzkoako Ur Kontsorzioa arduratuko da aurrerantzean, eta horrek aldaketak ekarriko ditu uraren kontsumoaren eta zaborraren zerbitzuaren ordainagirietan.

Orain uraren kontsumoaren zenbatekoa eta zaborraren zerbitzuaren ordainagiri bakarrean jasoko dituzte herritarrek, hau da, biak batera kobratuko dira. Udaletxeko beheko solairuan uraren horniduraren inguruko bezeroen arretarako makina martxan dago, 08:00etatik 14:00etara. Makina horren bidez, bideo deiez, herritarrek titularitate aldaketak, ordainagiriaren inguruko kontsultak, zerbitzuaren bajak... egiteko aukera izango dute.



**"UROLA ERDIA ISPILUAREN AURREAN" KANPAINAREN BAITAN, ENERGIA SUBIROTASUNAZ ARITU ZIREN**

"Urola Erdia ispiluaren aurrean" kanpainaren barruan antolatu duten hitzaldi zikloaren bigarren hitzordua egin zuten hilaren 21ean, Kultur Etxean. Azkoitian, Azpeitian eta Zestoan jarri dute martxan hitzaldi zikloa, Urola Erdiko herritarrek mugikortasunari, energiari eta lurralde-antolamenduari buruz hausnar dezaten.

"Energia subiranotasuna lor daiteke?" galderari erantzuten eta energia sorkuntzari, lurraldeari eta etorkizunari buruz hausnartzen ahalegindu ziren Itxaro Latasa, lurralde antolamenduan eta jasagarritasunarekin lotutako planifikazioan aditua; eta Leire Urkidi, trantsizio ekosozialaren esparruko ikertzailea. Jon Artano kazetariak gidatu zuen saioa.



**DOZENAKA ZESTOAR IZAN DIRA SEVILLAN TALDE TXURI-URDINA ANIMATZEN**

Egun handia izan zen hilaren 18koa realzaleentzat, Realak Espainiako Kopa irabazi baitzuen Atletico Madrilaren aurka. Dozenaka zestoarrek bidaiatu zuten Sevillara, hegazkinaz, trenez zein autobusez, taldea animatzera. Asko eta asko izan ziren Sevillako kaleetan nahiz Cartuja estadioan ustekabean zestoarrekin topo egin zutenak. Haiek bidalitako irudiekin osatu dugun argazki galeria osorik gure webgunean ikus dezakezue.



**GIRO EDERREAN OSPATU ZUTEN GAZTE ASANBLADAREN 37. URTEMUGA**

Zestoako Gazte Asanbladak 37 urte bete ditu aurtan, eta apirillean zehar ospakizunetan murgilduta ibili dira aurtan ere. Hain zuzen, hilaren 25ean goizetik gaualdera arteko egitarauarekin ospatu zuten urteurrena.

Futbito txapelketak hartu zuen protagonismoa goizean, eta eguerdian bazkaria egin zuten kiroldegiko aterpean. Arratsaldetik aurrera, musikak girotu zuen festa: Stepi Selektah taldeak Laranjadi plaza dantzan jarri zuen, eta gauean, Manitu talde zestoarrak Oroitzapen berriak izenburuko disko berria aurkeztu zuten Gaztetxean. Ondoren, Band Sound System taldea igo zen oholtzara, eta M&M zestoarrak arduratu ziren festa ixteaz.





Hamabost urte daramatzat energia berriztagarriak kontsumitzen, kooperatiba bateko bazkide naizelako. Niretzat oso baliagarria da, eta askoz merkeago ateratzen denez merzezi du. Gainera, kooperatiban bazkideen ongizatea bilatzen dute, ez irabazi ekonomikoak.

**Ricardo Anton**  
64 urte



Bai. Adibidez, internet bidez gutxiago erostea, garraioan energia gutxiago kontsumitzeko, eta bertako dendetan gehiago erostea. Edota ontzi-garbigailua goraino beteta dagoenean bakarrik jartzea bezalako neurri txikiak hartzeko prest egongo nintzateke.

**Ander Zubelzu**  
34 urte



Garraio publikoa gehiago erabiltzea, ibilgailu pertsonala erabili beharrean; arropa lehorgailua erabili ordez esekitzea; etxeko argiak beharrezkoak direnean bakarrik piztea... horrelako neurri txikiak hartzeko prest egongo nintzateke, bai.

**Naroa Aizpuru**  
22 urte




Prest egongo nintzateke nire energia-kontsumoa murrizteko ohitura berriak hartzeko. Alde batetik, ingurumenaren zaintzan laguntzeko modua delako, eta, bestetik, ekonomikoki ere aurrezteko aukera ematen duelako.

**Leire Martija**  
36 urte

## PREST EGONGO AL ZINATEKE EGUNEROKO OHITURAREN BAT ALDATZEKO ENERGIA GUTXIAGO KONTSUMITZEKO?

- bai
- bai, aldaketa txikiak eta errazak badira
- ez
- ez nago ziur



Erantzuleak guztira: 56



**Zigarro-punta ugari lurretik**



**Arteaga auzoan aparkalekuak eta oinezkoen pasabideak margotu dituzte**

## maiatza

**01** **SANTAKUTZAK**  
ZESTOAN

**02** **LARUNBATA**  
17:30.

Santakutzetako Pilota Txapelketako finalak. 19:00. Idiakaitz

Txistulari taldea, Azpeitiko Banda eta Zestoako Musika Bandaren kalejira. 22:30. Helduen danborrada. Ondoren, Ustekabe txaranga.

**03** **IGANDEA**

10:30. Idiakaitz Txistulari taldearen diana. 18:00. Umeen danborrada.

### SANTAKUTZAK IBAÑARRIETAN

**09** **LARUNBATA**

19:00. Zapo jokoa.

**10** **IGANDEA**

12:00. Hitzaren Liturgia, Santo Kristo ermitan. 13:00. Herri kirolak. Harriarekin: Jon Unanue (Goenatxo III) eta Xabier Aranburu (Guzta). Aizkolariak: Mikel Larrañaga eta Eneko Otaño.

### ASENTZIOAK ENDOIAN

**14** **OSTEGUNA**

Meza eta auzo afaria soinu-joleekin.

**15** **OSTIRALA**

Gauean Mus Txapelketa.

**16** **LARUNBATA**

Arratsaldean umeentzako jolasak. Gauean soinu-joleak.

**17** **IGANDEA**

Goizean Itziarko dantza taldearen emanaldia. Arratsaldean herri kirolak.

### SAN ISIDRO JAIK ARROABEAN

**14** **OSTEGUNA**

18:00. Film laburren emanaldia eta egileekin solasaldia.

**15** **OSTIRALA**

Arratsaldean, kurtso amaierako dantza emanaldia eta kurtso amaierako trikiti eta pandero emanaldia.

**16** **LARUNBATA**

Arratsaldean, bingo eta magia ikuskizuna. Gauean, herri afaria eta DJ Patx.

**17** **IGANDEA**

10:00. Udaberriko VI. Argazki Rallya.

**08** **OSTIRALA**

[Zestoako Zaintza Sarea] Aretoko dantza saioa Kiroldegian, Eider Mendizabal eta Aritz Fernandezekin.

**10** **IGANDEA**

Zestoako eta Elizondoko musika banden elkartrukea. 12:30ean, Euskal Herria plazan.

**13** **ASTEAZKENA**

[Zestoako Zaintza Sarea] Zestoa Osasuntsuko ibilbide motza.

**14** **OSTEGUNA**

Jubilatuaren irteera Orio eta Aginagara.

**15** **OSTIRALA**

Kalakan taldearen kontzertua.

**16** **LARUNBATA**

Udaberriko Festa Amillubin. Goizean, bi mahai-inguru eta umeen txokoa. Ondoren, bazkaria. Arratsaldean, zirku tailerra eta emanaldiak: poesia musikatua, bertso sesio elektronikoa, musika zuzenean...

**23** **LARUNBATA**

XI. Laiak Ardo Dastaketa. \* Fundizio Fest. 17:30etan Gaztetxean, Arima eta Mihise. 20:00etan Plazan, Argizulo dub Station & Eira, Beñaranks eta Fundizio crew. 23:00etan Plazan, Min eta Burutik. \* Pazko festa Aizarnan. Goizean zehar artisau azoka eta umeentzako txokoa. Ondoren, bazkaltzeko arkumea txotxarekin eta trikitalariak. \* Iraetako tren txikia irekita.

**25** **ASTELEHENA**

Odol ateraketak.

**28** **OSTEGUNA**

[Zestoako Zaintza Sarea] Aizarnako Zaintza taldea bilduko da.

**30** **LARUNBATA**

Arteagako festa eguna. Goizean, Ertxiña mendira igoera eta Aizpearen kontzertu akustikoa. Ondoren, auzo bazkaria. Arratsaldean, umeen jolasak eta poteoa. Gauean, kontzertuak: Arrixku eta DJ Costmix.

### GAZTELEKUKO MAIATZEKO ESKAINETZA

**M7, 14, 28:** Jolas librea (10-11 urte).

**M8, 9:** Jolas librea (12-16 urte).

**M15:** Sukaldaritza: pizzak (12-16 urte).

**M16:** Itxita.

**M21:** Sukaldaritza: patata tortila (10-11 urte).

### BARBANTXO AISIALDI TALDEA:

Herrigunean 4-5 urte: M13 eta 27.

Herrigunean 6-9 urte: M8 eta 22.

23an, Pazko festak.

Aizarnan: M8 eta 22.

Iraetan: M15 eta 29.

### TXEPETXA ARROABEAN

M8 eta 22: Haurrentzat jolasak.

M8: Magia ikuskizuna.

M29: Ipuin-kontalaria.

### KONTAIDAZU IPUIN BAT

Maiatzak 5 eta 19. Liburutegian, 17:30ean.



**Taxi Zestoa**

9 Eserleku  
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906



*Surya Paz Marticorena*

Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portale kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



**ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA**

943 147 019  
sjzuzendaritza@gmail.com



**FERREGI**

BERRIKUNTZAK

**ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA**  
**GREMIOEN KOORDINAZIOA**  
**AEROTERMIA · GASA**  
**BEROKUNTZA**

Jagoba Otaegi Isidro Fernandez  
695 721 015 690 108 996



KIMUBAT

— GARDEN

# Lorategia zaindu ureztaketa sistema egokiekin

Zure lorategia osasuntsu hazteko puntako teknologia.  
Kalitatezko markak. Lorategi bakoitzean pentsatutako konponbideak.

